

Datibo sintagmen izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarritzko zenbait datu*

Pablo Albizu

EHU-LEHIA

Abstract

Artikulu honen helburu nagusia komunztaduradun eta komunztadura gabeko euskal DAT sintagmek oso bestelako sintaxia dutela erakustea da. Xede horrekin, bost datu mota baliatuko ditut artikuluan: bere genitibo bihurkaria, perpaus arazle inpersonalak, behar-nahi aditz modalak eta irudi aditzak, eta azkenik DAT izenlagunak. Orobat, argudiatuko dut diferentzia hori DAT sintagmen izaera sintaktiko bikoitzaren ondorio direla: komunztaduradunak DetS argiak diren bitartean, komunztaduragabek PoS-en jokaera sintaktikoa erakusten dute. Jokaera bikoitz hori azaltzeko orduan, Ormazabal & Romeroren (1998) Aplikatiboaren Hipotesia-ren ildotiko azterbide baten alde agertuko naiz artikuluan.

0. Atarikoa

Datiboaren inguruko euskal gramatika-lanetan ia aho bateko adostasuna dago DAT sintagmak DS-ak direla.¹ Iritzi honek komunztaduran izan du bere euskarri nagusia, euskaraz argi baitago bakarrik DS-ek —hau da, ABS, ERG eta DAT argumentuek—, ez PoS-ek, eragin dezaketela aditz komunztadura. Hala erakusten dute (1)eko eta (2)ko perpausek:²

- (1) (Zuk) (zure emazteari) Zotz ziztrin batzuk ekarri zenizkion Japoniako bidaiatik.
- (2) a. Jonek ez dit (niri) hitz egin nahi.
b. Jonek ez du nirekin hitz egin nahi. [Elordieta 2001:59]

* Eskerrak eman nahi dizkiot Beatriz Fernandezi lan honen lehen idaztaldi bat irakurri ondoren egin zizkidan iruzkin aberasgarriengatik. Nire eskerrak, orobat, Beatrizi berari eta bai Javi Ormazabali ere azken urteotan datiboaren inguruko nire interesa bizitu egin dutelako era batera edo bestera. Esan gabe doa kanak leuzkakeen okerren edota mugen erantzukizuna nirea baino ez dela. Bukatzeko, lan hau ondoko ikerketa proiektuon babesean egin ahal izan dut: Euskal Herriko Unibertsitatearen UPV 00027.130-HA039/98 eta 1/UPV/EHU 00027.130-HA-8093/2000, Eusko Jaurlaritzaren PI-1998-127, eta Catalunya-ko Generalitat-en Xarxa Temàtica 2000XT-00032.

¹ Beste askoren artean, Albizu (1990a), Elordieta (2001b), Euskaltzaindia (1985 [1991]), Fernández (1997), Hualde (1988), Laka (1993 1995), Ortiz de Urbina (1989). Urriak izan arren, badira, dena dela, bestelako proposamenak ere, esaterako, Artiagoitia (1992) eta Ormazabal & Romero (1998).

² Honako laburdura hauek erabiliko ditut testuan zehar: ABS=absolutiboa, ERG=ergatiboa, DAT=datiboa, GEN=genitiboa, INST=instrumentala, KMZ=komunztadura, D=determinatzailea, Po=postposizioa, T=tempusa, A=aditza, a=aditz txikia, K=kasua, φ=izen-tasunak, HELB=helburua.

Alabaina, ezaguna denez, badira gure hizkuntzan hiru erabilera edota testuinguru sintaktiko DAT komunztadura, kasuan kasu, ezinezko edo hautazko bihurtzen dutenak. Lehendabizi, perpaus arazleetan —ikusitako besteak beste Albizu (1997 1998c), Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia (1989), Hualde (1988), Ortiz de Urbina (2000a) eta Rodet (1992)— menpeko aditzaren DAT barne-argumentuak ezin du komunztadurarik eragin aditz laguntzailean, batzuetan arrazoi morfologikoengatik (3),³ bestetan arrazoi sintaktikoengatik (4) —ik. §2. Hauen bina adibide dakart (3)an eta (4)ean:

- (3) a. ?Aitari liburua emanarazi diote Joxeri. [O de U 2000a:450 (Euskaltz. 1987:62)]
 b. Anaiari itxaronarazi didate. [Ortiz de Urbina 2000a:450]
- (4) a. Elizak pobreei dirua emanarazten du.
 b. Epaileak droga saltzaileari jarraiarazi zuen. [Ortiz de Urbina 2000a:451]

Perpaus arazleez bestalde, DAT sintagmekiko komunztaduraz ezinbestekoa da euskal hizkera guztietan **Me/lui* edo *Pertsona-Kasuaren Baldintza* delakoaren efektuak saihestekotan —ikusitako Albizu (1997 1998b), Bonet (1991), Ormazabal (2000) eta Ormazabal & Romero (1998 2001). *Pertsona-Kasuaren Baldintza* dela medio, euskaraz edozein aditz jokatu [+ERG]-k ezin du 1. eta 2. pertsonako ABS markarik hartu DAT komunztadura argumentalik badarama.⁴ Ikusi, esaterako, (5)eko adibideak, non nahiz *ikasketaburuari* nahiz *Martari* DAT sintagmek aditzean markatzeke egon behar duten:

- (5) a. Nahiz eta ez merezi, ikasketaburuari gomendatuko **zaizkiot/zaitut/dizut*
 b. Ez da Afganistan osoan amerikarrei salatuko **naienik/nauenik/didanik*

Azkenik, ipar-ekialdeko euskalkietako hiztunek, oraindik ondo ezagutzen ez ditugun baldintza sintaktiko pean, DAT komunztadura aditzean markatzeke uzteko askatasun handiagoa dute mendebaldekoek baino —ik. Artiagoitia (2001a), Agirre (1991) eta batez ere Ortiz de Urbina

³ Azalpen morfologikoak euskal aditz jokatuak morfologikoki DAT komunztadura marka bakarrari euts diezaiokeelako hipotesia du oinarri. Azterbide honek azalduko luke DAT barne-argumentuak dituzten perpaus arazle pertsonaletan —(3)ko adibideak, orain (i)ean berriz emandakoak— bi DAT argumentuetariko batek erakusten duen komunztaduraz.

(i) a. ?Aitari liburua emanarazi diote Joxeri
 b. Anaiari itxaronarazi didate [Ortiz de Urbina 2000a:450]

Araziaren eta barne-argumentuaren arteko hautuan, jakina, egitura sintaktikoan garaien dagoena nagusituko da, alegia, arazia.

⁴ Euskararen zenbait euskalkitan —e.g., bizkaieraz—, baldintza, aditz jokatu [+ERG]-ei ez ezik, [-ERG]-ei ere aplikatzen zaie:

(i) a. *Jantau nitzaken
 b. Jantau nitzan beraiengana

Honetaz, ikusi testuan aipatutako erreferentziak.

(1994). (6)an jasotzen ditut Ortiz de Urbinak (1994:586-587) Duvoisinin *Laborantzako Liburu*-n (1858) bildu dituen hiru adibide:

- (6) a. Gauza horri ohartu direnak [Ortiz de Urbina 1994:586 (Duvoisin, 73)]
 b. Ni ez naiz ausartzen lan horri [Ortiz de Urbina 1994:586 (Duvoisin, 176)]
 c. Guziak begiratzen gare geroxagokoari [Ortiz de Urbina 1994:587 (Duvoisin, 165)]

Komunztadurarik gabeko DAT sintagmen izaera sintaktikoaren auzia baztertuxe egon da gure artean, eta salbuespeneko lanek, oro har, zeharka ukitu dute gaia. Hauen artean, Hualdek (1988) eta Fernándezek (1997), ipar-ekialdeko komunztadurazaren aipamena egitean, iradoki zuten —labur-labur eta arrazoitu gabe— halako esapideetan DAT sintagmak PoS-ak liriatekeela. Arazo honi buruzko eztabaida zabalagoa sortu da *Pertsona-Kasuaren Baldintzaren* inguruko lanetan, eta iritzi nagusi bien aldeko lanak aurki daitezke: batetik, Ormazabalek eta Romerok *Aplikatiboaren Hipotesia* (§2-3) ekarri dute euskararako, komunztadurarik gabeko DAT sintagmak PoS-ekin parekatuz —ik. Ormazabal (2000) eta batez ere Ormazabal & Romero (1998); bestetik, nik neuk (Albizu 1997 1998b) DS-tzat hartu ditut neure zenbait lanetan bai eta komunztadurarik gabeko kasuetan ere.

Artikulu honetan komunztadurarik gabeko DAT sintagmen sintaxia aztertzeraz nator. Honetan, agerian utzi nahi dut komunztaduradun eta komunztadura gabeko DAT sintagmek oso bestelako sintaxia dutela euskaraz eta, honenbestez, DAT sintagmek sarritan onartu baino jokaera *bikoitzago* dutela. Jokaera bikoitz hori erakustekotan, bost datu mota baliatuko ditut: *bere* genitibo bihurkaria (§1), *perpau* arazle inpersonalak (§2), *behar-nahi* aditz modalak eta *irudi* aditzak (§3), eta azkenik DAT izenlagunak (§4). Halaber, proposatu nahi dut ezberdintasun hori, DAT sintagmaren izaera sintaktiko bikoitzak eragiten duela: komunztaduradunak DS argiak diren bitartean, komunztaduragabeak PoS-tzat jo genitzake. Dena den, aurretiaz adierazi behar dut bigarren adierazpen honetarako ebidentzia ez dela erabatekoa, badaudelako litezkeen bestelako azterbideak aurkeztuko ditudan argudioetan. Azkenik, DAT sintagmen izaera sintaktiko bikoitzari erantzun erakargarria eman diezaiokeelakoan, oro har artikulu honetan Ormazabal & Romeroren (1998) *Aplikatiboaren Hipotesia*-ren alde agertuko naiz.⁵

⁵ Betiere aintzat hartuta proposamenak konpondu beharreko arazoak edo mugak dituela. Ikusi, esaterako, 13. oin-oharra. Era berean, aipatu behar da Elordietak (2001b) postposizio-inkorporazioaren aurkako bi argudio dakartzala —hutsune bizkarroiak eta zehar objektuen A'-mugida.

1. *Bere* genitibo bihurkaria

Komunztaduratik kanpo, nafar-lapurtera klasikoko *bere* genitibo bihurkariaren banaketa sintaktikoa da ziurrenik DAT kasua gainerako ERG eta ABS kasu gramatikalekin batu eta zehar kasuetatik argien bereizten duen fenomenoa —ik. Artiagoitia (2000 2001a), Ortiz de Urbina (1989) eta batez ere Rebuschiren (1985 1986 1991 1992 1993 1997) lan ugariak. Horrela, *Linschmann* legea dela medio, ezaguna da *bere* genitibo bihurkaria erabili ahal dela baldin eta bakarrik perpaus bereko ERG, ABS edo DAT argumentuek uztartzen badute. (7)-(8)ko adibideek agerian uzten dute aurkakotasuna: (Besterik esan ezean, atal honetako adibideak Rebuschiren (1997)-ko artikulu bildumatik ateratakoak dira.)

- (7) a. Peiok_i bere_i amari erakutsi dio txakurra. (ERG)
 b. Bere_i txakurrak Peio_i ausiki du. (ABS)
 c. Bere_i ama Peiori_i mintzatu zaio. (DAT)
- (8) Bere_{*i} ama Peioz_i mintzatu da. (INST)

Sistema klasikoak iparraldean eduki duen bilakaera dela eta, bi aldaera bereizten ditu Rebuschik (1986): batetik, *aldaera hertsia* edo *variété restreinte*, egungo behe-nafarrerari legokiokeena, eta, bestetik, *aldaera zabaldua* edo *variété élargie*, lapurterari legokiokeena. Lehenak, hau da behe-nafarrerak, sistema klasikoari eusten dio, berrikuntza txiki batzuk alde batera utzita behintzat; bigarrenean, aldiz, *bere*-ren erabilera zabaldu egin da, *haren* izenordainarenaren kaltetan, betiere (7) eta (8)ren arteko asimetria gordez.

Egungo iparraldeko bi sistema hauek bereziki adierazgarriak dira DAT sintagmen izaera sintaktikoaren auzi honetan. Errepara diezaiegun (9)ko adibideei:

- (9) a. Peiori_i bere_i dirua eman diot.
 b. (*)Peiori_i bere_i dirua eman dut. [Rebuschi 1997:226]

Nafar-lapurterak sarritan DAT komunztadura markatzeke uzten du aditzean. Rebuschik (1986) ohartarazi duenez, egungo behe-nafarrerak, (7) eta (8)ren arteko bereizkuntzaz gain, DAT sintagmen bi jokaera bereizten ditu DAT komunztaduraren presentziaren arabera. Zehazki, komunztadura derrigorrezko bilakatzen da DAT sintagmak *bere* genitibo bihurkaria uztartuko badu. Hau da, (9)an ikus daitekeen bezala, DAT argumentuak ezin du *bere* uztartu komunztadura

egin ezean. Lapurteraz, berriz, DAT komunztaduraren agerpenak ez dakar ondoriorik, perpaus biei gramatikal irizten zaie eta.

Egun arte, Linschmann legea azaltzeko bi azterbide jorratu dira gure gramatikagintzan. Lehenengoa, Ortiz de Urbinak (1989) plazaratutakoa dugu. Ikerlari honen ustez, *bere* bihurkariaren erabilera komunztaduraren presentziari lotzen zaio, aditz komunztadurak zilegiztatu behar baitu. Ikuspegi honetatik, (8)ko perpausa ezgramatikaltasuna da INST sintagmek ezin dutelako aditzean komunztadurarik eragin.

Ortiz de Urbinaren azterbideak bide ematen digu *bere* bihurkariaren banaketa edozein sintagmaren kategoria sintaktikoaren adierazle modura erabiltzeko: komunztadura eragiten duten sintagmak DS-ak baldin badira beti, ez PoS-ak, eta genitibo bihurkariaren zilegiztatzaileek komunztaduradunak izan behar baldin badute, orduan DS-ak ditugu izenordain hauen aitzindariak. Alabaina, ikerlari honen azalpenak dituen konponezineko arazo enpirikoek kolokan jartzen dute kategoria sintaktikoaren irizpide hau.⁶

Ortiz de Urbinaren arazo nagusia perpaus jokatu gabeen eskutik dator. Azterbidearen arabera espero zitekeenaren aurka, *bere*-ren uztardura zilegi da perpausotan, nahiz eta aditzek ez duten ez ageriko, ez ezkutuko komunztadurarik erakusten.⁷ (Adibide guztiak Rebuschiren (1997:208) artikulu-bildumatik hartuak dira.)

- (10) a. Halatan [Iainkoak_i bere_i graziaren emaitea] eta gure grazia haren errebizitzeko eta harekin batean bekhatuaren kentzeko prestatzea ere egin ditezke. (Ax. 133/273-3)
- b. Norbera arduratuko da [gauzak_i bere_i lekuan jartzeaz] (Euskaltz. 1984:73)
- c. Peiori debekatu diot [haurrei_i beren_i jostagailluak itzultzea]

Halaber, komunztadurarekiko loturaeza berresten du lapurterako *Peiori bere dirua eman dut* perpausak (9b). Perpaus honetan erakusten denez, DAT sintagmak *bere* uztartzen du aditzean komunztadurarik gabe ageri bada ere.

⁶ Rebuschik (1997:295), arazo enpiriko hau ez ezik, zenbait arazo teoriko ere aipatzen ditu.

⁷ Zabala & Odriozola (1996) aditz jokatu gabeek komunztadura tasunak dituztelako hipotesiaren alde agertu dira, aditzok *pro* izenordain isilak identifikatzeko eta zilegiztatzeko duten ahalmenean oinarrituta. Dena dela, azken urteotan zenbait ikerlarik —Albizu 1997 1998b, Elordietak 2001ab, Ormazabal 2000, eta Ormazabal & Romero 1998—, era ezberdinetako arrazoiak erabiliz, Zabala & Odriozolaren (1996) aurka argudiatu eta ezezko hipotesia aldarrikatu dugu. Batetik, Albizuk (1997 1998b), Ormazabalek (2000) eta Ormazabal & Romerok (1998) *Pertsona-Kasuaren Baldintza* —§0—. erabili dugu argudio gisa, hain zuzen, (i)eko asimetria:

(i) a. *Zuk ni Aneri aurkeztu naiozu
b. Gustatuko litzaidake [zuk ni Aneri aurkeztea]

Bestetik, Elordietak (2001ab) Zabala & Odriozolaren analisiaren ahulgune teorikoak azpimarratu ditu, KMZ-z baliatuko ez den beste azterbide bat plazaratuz.

Are gehiago, oso adierazgarria da ERG, ABS eta DAT sintagmez bestalde, inoiz komunztadurarik eragiten ez duten GEN sintagmak ere bilaka daitezkeela *bere*-ren uztartzaile. Ondorengo adibidean (11), menpeko nominalizazioan *Euskal herriaren* GEN sintagma dugu izenordainaren aitzindaria:⁸

- (11) Gure xedea zen orduan [Euskal herriaren_i...laguntzea bere_i zuzen ala behar-ordu guzietan]
[Rebuschi 1997:209 (J. Hiriart-Urruty:79)]

Ortiz de Urbinaren azterbidearen alternatiba gisa, Rebuschik (1997) *Uztarduraren Teorian* sustraitzen den azalpena dakar. Bere proposamenean, Uztarduraren Teoriaren doitu behar dela adierazten du Rebuschik eta, horretarako, Uztarduraren Eremu bi dagoela aldarrikatuko du: batetik, *Uztarduraren Eremu Hurbil Hertsia (UEHH)* eta, bestetik, *Uztarduraren Eremu Hurbil Zabala (UEHZ)*. Hona hemen eremu bietarako ematen dituen definizioak —ikus Rebuschi (1997:292):

- (12) *Uztarduraren Eremu Hurbil Hertsia (UEHH)*:

E, α izenordainarentzako eremu hurbil hertsia da, baldin eta E, α izenordaina, beronen L-gobernatzailearen ageriko argumentuak eta subjektu bat biltzen dituen gutxieneko islapen sintaktikoa bada.

- (13) *Uztarduraren Eremu Hurbil Zabala (UEHZ)*:

E, α izenordainarentzako eremu hurbil zabala da, baldin eta E, α izenordaina, beronen L-gobernatzailearen ageriko argumentuak eta α ez den β subjektu bat biltzen dituen gutxieneko islapen sintaktikoa bada.

Gauzak horrela, Rebuschik proposatzen du *bere* genitibo bihurkariak oso izaera berezia duela Uztarduraren Teoriari dagokionez, uztartua egon behar duelako bere *Uztarduraren Eremu Hurbil Zabalean* —ik. (14a)ko adibidea—, baina, era berean, aske bere *Uztarduraren Eremu Hurbil Hertsian* —ik. (14b)ekoa:

⁸ Bide batez, esaldi honek erakusten du *-ren* GEN sintagmak DS-ak edota buruztat lotura hutseko Postposizio betegarriak dituzten PoS-ak direla, lehenago esan baitugu iparraldeko euskalkietan benetako PoS-ak sekula ez direla *bere* bihurkariaren aitzindariak —ik. (8). Eguzkitza (1993) eta de Rijk-en (1993) ildotik, nik neuk DS-tzat hartuko nituzke.

- (14) a. Peio_i erran du <_{UEHZ} [_{UEHH} *bere_i laguna] joan dela>
 b. <_{UEHZ, UEHH} Iñaki_i [*bere_i etsaia] da> [Rebuschi 1997:282 eta 291]

Orain, (7) eta (8)ko adibideekin hasita, bietan, izenordaina daukan DS dugu *bere*-ren EHH eta perpausa, *bere*-ren EHZ. Azalpen honen arabera, (7) eta (8)ko adibideen arteko aldea *bere* izenordainak EHZeant subjektu egokiren bat aurkitzean ala ez aurkitzean datza: (8)an, *Peio*, -z postposizioaren osagarria izanda PoS batean murgilduta egonik, izenordainaren EHZtik kanpo geratuko da. Beraz, esaldiak Uztarduraren teoria urratuko du, *bere* aske baitago eremu horretan. Aldiz, (7)ko perpausetan aditzaren ERG, DAT zein ABS argumentuak, DS-ak izanik, litezkeen subjektuak edo aitzindariak ditugu.

Hel diezaiegun orain Iparraldeko (9)ko datuei, (15)ean berriro dakartzadanak. Gogoratu behe-nafarreraz, lapurteraz ez bezala, DAT komunztadura ezinbestean agertu behar dela aditzean DAT komunztadura, DAT argumentuak genitibo bihurkaria uztar dezan:

- (15) a. Peiori_i bere_i dirua eman diot.
 b. (*)Peiori_i bere_i dirua eman dut. [Rebuschi 1997:226]

Orain arte esandakotik behe-nafarrerarako atera daitezkeen ondorioak erabatekoak dira. Behe-nafarreraren asimetria erraz azaltzen da baldin eta onartzen badugu DAT sintagmen kategoria sintaktikoa aditzeko DAT komunztaduraren agerpenaren arabera aldatzen dela, hau da, komunztaduradun DAT sintagmak DS-ak direla, eta komunztaduragabeak, berriz, PoS-ak.

Lapurterari dagokionez, eta ildo bereko azalpenari jarraituz, pentsa liteke euskalki honetan DAT sintagmak DS kategoriakoak liratekeela beti, aditzak DAT komunztadura erakutsi ala ez erakutsi. Orduan, euskalkien arteko diferentzia parametrikoa komunztadura gabeko esaldietan DAT sintagmak edukiko lukeen kategoria sintaktikoarena besterik ez litzateke, hurrengo eskemak jasotzen duen bezala:⁹

⁹ Jasota utzi nahi dut, nahasterik sor ez dadin, DS-tzat dauzkadala esaldi jokatu gabeetako DAT sintagmak, nahiz eta aditzari komunztadurarik ez egotzi. Horretarako arrazoi nahikoa iruditzen zait (10)eko adibide jokatu gabeetan kasu gramatikaleko beste bi sintagmek —alegia, ezin ukatuzko DS izaera sintaktikoa duten ERG eta ABS sintagmek— erakusten duten jokaera berdintsua izatea. Ikus 7. oin-oharra.

(16) *A hipotesia:*

- a. KMZdun DAT sintagma: DS (Batuan eta euskalki guztietan)
- b. KMZ gabeko DAT sintagma: PoS (Behe-nafarrera)
- c. “ “ “ “ : DS (Lapurtera)

Dena dela, geroari begira interesgarriago deritzot hemen aurkeztu nahi dudan aldearen bigarren azterbide bati, (17)an eskematikoki dakarkizuedana:

(17) *B hipotesia:*

- a. KMZdun DAT sintagma: DS (Batuan eta euskalki guztietan)
- b. KMZ gabeko DAT sintagma: PoS (arg-egit) (Behe-nafarrera)
- c. “ “ “ “ : PoS (betegarri) (Lapurtera)

Rebuschik (1992) iradokitzen du postposizioak beren izaera argumentalaren arabera bereiz litezkeela: postposizioak, batetik argumentu-egituradunak eta bestetik argumentu-egituragabeak litzateke. Ikerlari honen iritziz, ezaugarri honek erabat baldintzatu lezake PoS-en jokaera Uztarduraren Teoriari dagokionez, postposizio betegarri bat buru daukaten PoS-ak azken buruan DS-en pareko liritekeelako uztarduraren eremuak zedarriztatzean.

Euskarri honi helduz, hemen proposatu nahi nuke komunztadura ageri ezean DAT sintagmak PoS-ak direla, nahiz behe-nafarreraz, nahiz lapurteraz. Orduan, (15)eko aurkakotasuna azaltzerakoan DAT sintagmen Po buruak euskalki bakoitzean duen izaera argumentala baliatuko litzaiguke: behe-nafarreran DAT sintagmen postposizioak argumentu-egituradunak liriteke; lapurteran, berriz, argumentu-egituragabeak edo betegarriak.

2. Perpaus arazle inpertsonalak

Genitibo bihurkariak alde batera utzita, sarreran esan dudan bezala, perpaus arazle inpertsonaletan —hain zuzen, erreferentzia arbitrarioko araziak dituzten perpaus arazleetan— menpeko aditzaren DAT kasudun barne-argumentuak ezin du komunztadurarik eragin aditz laguntzailean. Ikusi berriro (4)ko adibideak, orain (18)ra dakartzadanak:

- (18) a. Elizak pobreei dirua emanarazten du / #die.
 b. Epaileak droga saltzaileari jarraiarazi zuen / #zion. [Ortiz de Urbina 2000a:451]

Inolako arrazoirik eman gabe izan bada ere, arestian esan dut adibideotan DAT argumentuaren komunztadurazak morfologikoa gabe, sintaktikoa duela azalpena. Jakina, (18)ko perpaus arazle inperzonaletan murriztapena ez da morfologikoa izango, erreferentzia arbitrarioko argumentu arazia komunztazina izanik, DAT kasudun barne-argumentuak erabil lezakeelako aditzaren DAT komunztadura marka. Eta perpausotako litezkeen adizki horiek, hizkuntzan berez existitzen direnetakoak izanik, bat etorri beharko dute ezinbestean hizkuntzan indarrean den zeinahi murriztapen morfologikorekin.

Gatozen, orduan, (18)ko kontrastearen azalpen sintaktikoa aztertzeraz. Lehenengo eta behin, gogora ekarri nahi dut egungo sintaxi-analisiak oso lotura hertsia ezartzen dutela —zenbait hizkuntzatan (esaterako, Demonte 1994ab 1995, Romero 1997), behinik behin— DAT komunztaduraren gauzatzearen eta DAT sintagmen lekualdatze sintaktikoaren artean, batetik, komunztadura mugimenduaren ondorio delako eta, bestetik, mugimenduezak komunztadurazak dakarrelako.¹⁰

Bigarrenik, perpaus arazleei buruzko analisisetan esan ohi da —esaterako, Franco & Landa (1995)— menpeko aditzaren barne-argumentuek perpaus nagusian erkatzen dituztela beren ϕ -zein Kasu-tasunak. Jo dezagun baietz eta demagun aditz arazlea bera dela perpausotan erakarlea edo, nahi bada, mugidaren eragilea. Ideia biak elkartuz, honako bi irudikapenak dagozkie hurrenez hurren (18b)ko aukera biei:

- (19) a. #Epaileak droga saltzaileari jarraiarazi zion.
 b. $[_{TS} \dots [_{AS} \text{droga saltzaileari}_j \text{arazi } [_{aS} \text{pro}_{arb} a [_{AS} \text{jarrai } t_j]]]]$
 $\underbrace{\hspace{15em}}_{+\phi, +K}$

¹⁰ Euskaraz, korrelazioak salbuespenak dauzka. Predikatu ezakusatiboekin ez ezik (ik. Artiagoitia 2001a, Ortiz de Urbina & Etxepare 2000, Zabala & Odriozola 1997) hiru argumentudun aditzekin ere, hurrenkera ezmarkatua euskaraz ez da zenbaitetan DAT-ABS, alderantzizkoa baizik. Honen adibide ditugu *aurkeztu*, *salatu* eta *gomendatu* bezalako aditzak:

- | | | | |
|-----|-------------------------------|------|---|
| (i) | Zer egingo duzu gaur gauean? | (ii) | Zure enpresako lanpostu berria dela eta, zer egin duzu? |
| a. | Ane gurasoei aurkeztuko diet | a. | Peru nagusiei gomendatu diet |
| b. | #Gurasoei Ane aurkeztuko diet | b. | #Nagusiei Peru gomendatu diet |

Egitasmo Minimalistaren azken formulazioetan (Chomsky 1998 1999), argumentuen mugida eta komunztadura fenomeno beregainak bilakatu dira, komunztadura-tasunen erkatzea urrutitik eta inolako mugimendurik gabe gerta daitekeelako. Hau dela eta, DAT-ABS hurrenkera kanonikoen eta (i)-(ii)ko adibideen arteko aldea aditza DAT sintagmari legokiokoen EPP tasun batez, hau da, DAT argumentu osoaren *pied-piping* delako fenomenoaren eragingo duen tasun batez hornitua egotean ala ez egotean datza.

- (20) a. Epaileak droga saltzaileari jarraiarazi zuen.
 b. [TS ... [AS arazi [as pro_{arb} a [AS jarrai droga saltzaileari]]]]

Irudikapenetatik erraz atera daiteke (19)-(20)ko aurkakotasuna Hurkotasunaren Hatsarrearen (Chomsky 1995) ondorio zuzena dela. Hurkotasunaren Hatsarrearen arabera, edozein buruk berarekin bateragarri den gertueneko objektu sintaktikoarekin erkatu behar ditu bere tasunak.¹¹ Ezgramatikala den DAT komunztaduradun adibidean (19), *droga saltzaileari*-k, AS nagusiaren espezifikatzaileira igotzean, Hurkotasunaren Hatsarrea urratzen du: *pro_{arb}* arazia, ϕ - eta Kasu-tasun defektiboak eduki arren (ik. Albizu 1998c 2000), litekeen erakargaia da, eta aditz arazlearen eta DAT argumentuaren bitartean dagoenez, azkenaren mugida eragotziko du.^{12,13}

Komunztadura gabeko adibide gramatikalean (20), aldiz, hatsarreak ez du inolako garrantzirik: DAT sintagma ezin mugi daiteke bere sorgunetik, aditz arazleak mugida eragingo duten tasunak falta dituelako. DAT sintagmak duen kasuaren etorburuari dagokionez —gure eztabaidagaiarekiko erantzuna baldintzatuko duen galdera, hain zuzen—, bi bidetatik abia gaitzke: batetik, pentsa liteke argumentuak, DS kategoriakoa izanda, berezko DAT kasua jaso lezakeela aditzetik; bestetik, Ormazabal & Romeroren (1998) proposamenaren ildotik, DAT sintagmak sintaktikoki PoS-tzat jo daitezke, hau da, ikerlarion Aplikatibo Sintagmatzat. (21)ean irudikatzen dudana bezala, Ormazabal & Romeroren sisteman, bi barne-argumentu dituzten predikatuek Aplikatibo Sintagma bat islatzen dute non Gai-argumentuak espezifikatzaile-gunea beteko duen eta Helburu-argumentuak osagarri-gunea. DAT komunztaduradun egituretan, islapenaren buru den Aplikatiboaren inkorporazioak DAT argumentuaren igoera zilegiztatu eta eskatuko du, beronek aditzaren eta aplikatiboaren ϕ - zein Kasu-tasunak erkatu beharko baititu (21b); komunztadurarik ezean, Aplikatiboa ez da inkorporatuko eta Helburu-argumentua bere sorguneari geratuko da beren kasua Aplikatibotik jasoz (21a):

¹¹ Hatsarrearen beste aplikazio baterako, ikusi §3.

¹² Bide batez, datu honek agerian uzten du, Ortiz de Urbina (1989) aurka eta Albizuren (1998ac 2000) alde, komunztadura gabeko perpaus inpersonaletako *pro_{arb}* indarrean dela sintaxian.

¹³ Azterbidea zertxobait gehiago garatu behar da esamoldeok Gai- eta Helburu-argumentuen artean erakusten duten asimetriari erantzun ahal izateko. Hau da, azaldu gabe gelditzen da zergatik, (18)ko Helburu-argumentuek ez bezala, ondoko (i) adibidean komunztaduradun Gai-argumentuek ez dakarren Hurkotasun efekturik:

(i) Herrira zerorrek eramanarazi beharko nauzu [Ortiz de Urbina 2000a:451]

Konponbide bat liteke proposatzea ABS argumentuek ϕ - eta kasu-tasunak egitura sintaktikoko beheko gune batean erkatzen dituztela, non *pro_{arb}* ren gunea zeharkatuko ez duten.

Bide batez, (i) eta (ii)ren arteko kontrasteak arazo konpongaitzak dakarzkio, lehenengo, Ormazabalek (2000) eta, gero, Ormazabal & Romerok (1998) Pertsona-Kasuaren Baldintza (§0) azaltzeko plazaratu duten azterbideari.

(ii) *Amak (ni) etxera ekarrarazi naio anaiari

- (21) a. $[_{AS} A [_{ApS} DS_{Gai} Ap DS_{Helb}]]$
 b. $[_{AS} DS_{Helb} A+Ap_h [_{ApS} DS_{Gai} t_h t_j]]$

Jarraian, (19a)ko perpausak Ormazabal & Romeroren hipotesia aplikatuz gero edukiko lukeen egitura aurkezten dut, bestearekiko aldea azpimarratzeko xedez:

- (22) a. Epaileak droga saltzaileari jarraiarazi zuen.
 b. $[_{TS} \dots [_{AS} arazi [_{aS} pro_{arb} a [_{AS} jarrai [_{ApS} Ap droga saltzaileari]]]]]]$

Halaber, ondora dakart (20a)ko adibideari legokiokeen egituraren irudikapena:

- (23) a. #Epaileak droga saltzaileari jarraiarazi zion.
 b. $[_{TS} \dots [_{AS} droga saltzaileari_j arazi [_{aS} pro_{arb} a [_{AS} jarrai+Ap_h [_{ApS} t_h t_j]]]]]]$

Hauek guztiak horrela, atal honetan aurkeztutako datu-sorta ez da berez erabakigarria DAT sintagmen kategoriaren auzian, ez behintzat ikerketaren oraingo fasean. Alabaina, datuok berretsi egiten dute argi eta garbi DAT sintagmek jokaera sintaktiko bikoitza dutelako hipotesia eta, artikuluko gainerako argudioekin batera hartuta, indarra ematen diote komunztadura gabeko DAT sintagmak PoS-ak direlako hipotesiari.

3. DAT sintagmen oztopo-ahalmena

DAT sintagmek lekuz aldatzeko gaitasunaz bestalde, gainerako argumentuen mugidak eragozteko ahalmena ere hartu behar dugu aintzakotzat. Horregatik, mahai gainera ekarri nahi ditut *behar-nahi* aditz modalak —ik. besteak beste Albizu (1990b), Euskaltzaindia (1989), Hualde (1988), Ormazabal (1991) eta Ortiz de Urbina (1989)— eta *irudi* aditzak —ik. Salaburu (1987) eta batez ere Artiagoitia (2001b).

Lehenengoekin hasita, ondo dakigunez, *behar-nahi* aditz modalak, menpean aditz ezakusatibo bat hartzen dutenean, **edun* zein *izan*, alegia, aditz laguntzaile [+ERG] zein [-ERG] batek lagunduta ager daitezke euskalkiaren arabera (24a). Alderatu orain (24a)ko adibidea (24b-c)en emandakoekin. Adibideotan ikus daitekeen bezala, DAT sintagmaren txertatzeak, DAT

komunztadura eraginez gero, ezinezko bihurtzen du aditz laguntzailearen txandaketa (24b) eta, honenbestez, ABS-DAT jokadurako adizkia agerrarazten du (24c):

- (24) a. Etxera hurbildu behar dut / naiz.
 b. Berari hurbildu behar dut / *diot.
 c. Berari hurbildu behar natzaio /??naiz. [Ortiz de Urbina 2000b:238]

Hau da, DAT komunztadurak [+ERG] aditz laguntzailearen erabilezintasuna dakar aditzokin.

Gertakari honen pareko dirudi, itxuraz behintzat, *irudi* aditzen ERG-jokadurak datibo komunztadurarekin erakusten duen bateraezintasunak. Artiagoitiak (2001b:26) osatutako ondorengo adibide-sortak agerian uzten duen bezala, DAT komunztadura onartzekotan *irudi* aditzak ABS-DAT sailean jokatuko dira ezinbestean, *izan* laguntzaileaz, alegia:

- (25) a. Jonek zintzoa ematen du.
 b. *Jonek zintzoa ematen dit.
 (26) a. Jonek zintzoa dirudi.
 b. *Jonek zintzoa dirudi[z]t.
 c. Jone zintzoa iruditzen zait. [Artiagoitia 2001b:26]

Lan hipotesi soil bat besterik ez bada ere eta oraindik xehetasun teknikoak zehazkizun badaude ere, hemen proposatu nahi nuke bai aditz modalek, bai *irudi* aditzek DATarekiko dituzten pareko murriztapenak, aurreko atalean bezala, Hurkotasunaren Hatsarrearen ondorio direla. Hau erakusteko, jarri dezagun gure arreta aditz modaletan.¹⁴

Demagun, (27)an irudikatu bezala, aztergai ditugun perpaus modalak igoera-egiturak direla eta perapusaren *pro* subjektu isila menpeko gune batean sortu —(27)ren kasuan, behe-AS-an— eta TS-aren Espez-era igotzen dela T buruaren ϕ -tasunak erkatzera.^{15,16} Orobat, demagun, Lakaren (1993 1995) *Kasuaren Parametroa* ontzat joz, bi buru ezberdinek erkatzen dituztela ERG eta ABS kasuak: Tempusak ERG kasua, eta Aditzak (edo Aspektuak) ABS kasua. Perpaus


¹⁴ Analisi berau aplikatuko litzaieke, beharrezko egokitzapenekin, *irudi* aditzei. (25)-(26) adibideak azaltzeko gogoan duan azterbidea Artiagoitiaren sisteman errotuko litzateke.

¹⁵ Kontrola mugimendutzat jotzen duen Hornstein-en (1999) Kontrol Teoriari heltzen diot, beraz.

¹⁶ Albizuk (1990b), Hualdek (1988), Ormazabalek (1991) eta Ortiz de Urbinak (1989) perpauson bestelako azterketa formalak proposatzen dituzte.


Aldiz, Hurkotasunaren Hatsarrearen eragina saihestu egiten dute (29)ko eta (30)eko perpausek. Lehenak, —hau da, aditz laguntzaile [-ERG]-dun perpausak— *pro* subjektua aldizka mugituz lortuko du. (29)an, subjektua TS-aren Espez-erako bidean goiko AS-ra igoko da ABS kasua erkatzera bitarteko mugida baten bidez. (28)ko egituran *berari*, DAT argumentuak osatutako katearen burua, eta *pro* subjektua *gutxienezko eremu* ezberdinetan zeuden, hau da, *behar* eta *hurbildu* aditzen gutxienezko eremuetan hurrenez hurren.¹⁸ (29)an, aldiz, bitarteko mugimendu horri esker ABS subjektua eta DAT argumentua distantziakide geratuko dira goiko AS-an eta, hortaz, T buruak ABS subjektua erakarri ahalko du:

(29) a. Berari hurbildu behar natzaio.



Euskarak esamolde honetan Hurkotasunaren Hatsarrearen ondorioei ihes egiteko eskaintzen duen beste bide bat DAT komunztaduraren ezabatzea da. (30)ean ikus daitekeen bezala, DAT komunztadurazak (ABS)-ERG jokadura agertzeko aukera emango dio aditz jokatuari:

(30) a. Berari hurbildu behar dut.



DAT komunztaduradunen eta DAT komunztaduragabeen arteko aldea —hau da, (28) eta (30)eko adibideen artekoa— erraz azaldu dezakegu, Ormazabal & Romerori (1998) jarraituz, DAT komunztaduraren agerpena DAT sintagmaren mugimenduarekin parekatuz gero.²⁰ (30)ean, *berari* izenordaina, aplikatiboa inkorporatu ezean, aditz modalaren islapen nagusira igo beharrean ApS-n geratuko da, eta, ondorioz, ez du eragotziko *gutxienezko eremu* berean dagoen

¹⁸ Bai *Distantziakidetan* nozioaren definiziorako, bai honen inguruko eztabaidarako, ikusi Chomsky (1993 1995). Ez dut isilean gorde nahi Egitasmo Minimalistak baztertu egin duela nozioa bere egungo formulaziotik (Chomsky 1998 1999). Litekeena da, beraz, (28) eta (29)ren arteko asimetriaren azalpen teorikoak egokitu beharra izatea. Hala eta guztiz, iruditzen zait, egokitzapenak zeinahi ere diren, ez dela aldatuko argudioaren funtsezko ideia, alegia, esamoldeotan DAT sintagmaren presentziak Hurkotasunaren Hatsarrearen urratzea dakarrela eta, honenbestez, DAT sintagmak DS-ak direla frogatzeko erabil ditzakegula datuok.

¹⁹ Azterkizun geratzen da (24c) adibideko ??*Berari hurbildu behar naiz*, gramatikaltasun maila eskaseko esaldia, ez baitut oraindik horretarako azalpenik. Nolanahi ere, iruditzen zait nire hipotesi orokorra zapuztuko ez duen azterbidea duela.

²⁰ Ikusi 10. oin-oharra.

subjektuaren mugida. Esan gabe doa, (30)eko egitura honetan aplikatiboa ez denez inkorporatzen, DAT sintagmek PoS-en gisara jokatzen dute sintaktikoki.

Laburbilduz, atal honetan erakutsi dut hizpide dugun auzian kontuan hartu behar dugula DAT argumentuek gainerako osagaien lekualdaketa eduki dezaketen oztopo-ahalmena. Bai *behar-nahi* aditz modalek, bai *irudi* aditzek argi erakusten dute DAT sintagmek komuztaduraren araberrako sintaxia dutela eta horren azpian berauen kategoria sintaktikoa egon daitekeela. Aditzok komuztaduradun DAT sintagmak DS-tzat jotzeko arrazoi argia dira; komuztadura egin ezean, hipotesi biak bideragarri gerta badaitezke ere, gainerako argudioetako datuak aintzat hartuta nik neuk interesgarriago deritzot PoS-arenari.

4. DATko izenlagunak

DS-aren esparrura aldatuz, hel diezaiogun orain DATko izenlagunen fenomenoari —ik. besteak beste, Alberdi (2001), Euskaltzaindia (1985 [1991]), Makazaga (1999) eta batez ere Zabala (1999). Gertakari honek euskal gramatika duen bazterreko izaera dela medio, oro har gramatika lanek —batik bat euskara teknikoko alorretik kanpokoek— ez diote behar lukeen garrantzia eman hona ekarri nahi dudana datu-sorta honi.

(31)ko adibideek erakusten duten bezala, euskaraz izenlagunek genitibo marka hartu behar dute beti:

- (31) a. Atzo*(ko) pelikula gomendatu didate.
b. Etxea*(ren) salmenta gaizki atera zaigu.

Nolanahi ere, arauak badu salbuespen esanguratsu bat, hasiera batean DS soiletara bakarrik mugatuko dena, esaterako izenburuetara.²¹ Ezaguna denez, DS soiletan izenlaguna lotura markarik gabe gauzatu ahalko da baldin eta izenaren eskuinean badoa eta —hemen gehien interesatzen zaiguna— baldin eta sintaktikoki PoS kategoriakoa bada.²²

²¹ Urriak diren arren, perpausetan txertatutako salbuespenak ere ez dira falta euskal testuetan. Ikus, esaterako, testuko (36)ko adibideak.

²² Zabalak (1999:114-118) erakusten duenez, murriztapena kategoriala ez ezik, semantikoa ere bada. Zehatzago, izenaren eskuinean lotura markarik gabe ager daitezkeen izenlagun bakarrak balio adberbialeko izenlagun tematikoak dira, gainerakoak —hots, tasunezkoak— ezgramatikalak ditugularik. Aldera (32)ko adibideak honako hauekin:

(i)	a.	Lehorreko espezieak	a'.	#Espezieak lehorrean	
	b.	Karbonatozko plataformak	b'.	*Plataformak karbonatoz	
	c.	Benetako banaketa	c'.	*Banaketa benetan	[Zabala 1999:118]

- (32) a. Uhinen hedapena hutsean zehar / *Hutsean zehar uhinen hedapena
 b. Teoremaren frogapena zenbaki errealetarako / *Teoremaren zenbaki errealetarako frogapena
 c. C bitamina dosi altuetan / *Dosi altuetan C bitamina
 d. Heriotz bat gadosiagatik / *Gadosiagatik heriotz bat
 [lehen biak, Zabalarenak (1999:114-118); gainerakoak, Makazagarenak (1999:46)]

ERG eta ABS sintagmen kasuan, DS-ak diren neurrian, lotura markaren isiltzeak esamoldearen ezgramatikaltasuna ekarriko du:

- (33) a. *Sindikatuaren aldarrikapena 35 orduak / *35 orduen aldarrikapena sindikatuek
 b. *Etxeberriaren ospaketa gola / *Golaren ospaketa Etxeberriak

Ondoko adibideetan —lehen biak Makazagaren (1999:46, 17. oin-oharra) lanetik hartuak— ikus daitekeen bezala, DAT sintagmek zehar kasuen pare jokatzeko dute, zilegi baitira izenaren eskuinean:

- (34) a. Erresistentzia penizilinari / *Penizilinari erresistentzia
 b. Alergia salizitatoi / *Salizitatoi alergia
 c. Aznarren deia Zapaterori / *Aznarren Zapaterori deia

Eta eskuinetara ez ezik, izenaren ezkerretara ere agertzen dira inoiz:

- (35) a. Descartesi sarrera [Euskaltzaindia 1985 (1991:233)]
 b. Luis Villasanteri omenaldia

Are gehiago, ez dira falta literaturan DATko izenlagunak perpausetan azalduta ere (36a-d) darabiltzaten adibideak. Esaterako, Agirrek (1991:57 eta 56) eta Euskaltzaindiak (1985 [1991:233]) honako adibide hauek batu dituzte, hurrenez hurren:

- (36) a. Galde-eskari salla agortu da, *Yaunari eskerrak*. [Itz-lauz 24]
 b. Gaur denak ziren *bibak eta gorak kapitainari, Caballeriari eta haiez erditu zen amari*. [Manu, 416]
 c. Ez zen baitezpadako kontua: baina zen (...) *haren azken agurra bere lagunari*. [M.Treku, 133]

DAT sintagmen erabilera honetaz, Euskaltzaindiak (1985 [1991:233]) dio DATko izenlagunak “tituluetan eta izenburuetan onargarriagoak dir[ela], elipsiaren bidez emanda baitaude.” Euskaltzaindiak ez du zehazten zer isiltzen den, baina pentsa liteke aditzaren ezabatzeaz diharduela. Honela, bada, (34)ko eta (35)eko adibideak aditz isildun perpausak lirarteke eta, beraz, DAT sintagmak aditzaren argumentu soilak lirarteke, ez izenlagunak. Hala balitz, azterbide honek, ABS sintagmak, DAT sintagmak eta Postposizio Sintagmak aditz isilaren modifikatzailetzat jotzen dituen neurrian, guztiak berdinduko lituzke eta ondorioz zeharo indargabetuko luke hemen ekarri nahi dudana argudioa.

Elipsiaren hipotesia, alabaina, eutsiezina da, erraz erakuts baitaiteke (34) eta (35) bezalako izenburuak DS soilak direla: (35)eko DS-ei egilerik gehituz gero, beronek ERG kasua gabe, GEN lotura kasua hartzen du —ikus baita (36c) ere:

- (37) a. Ferrater Moraren/*Ferrater Morak sarrera Descartesi
 b. Euskaltzaindiaren/*Euskaltzaindiak omenaldia Luis Villasanteri²³

Honetatik guztitik ondorioztatuko dugu, beraz, DATko izenlagunen existentzia euskal gramatikan ezin ukatuzkoa dela. Eta datuok DAT kasua, kasu gramatikalekin gabe, zehar kasuekin biltzen dute argi eta garbi, deskripzioaren mailan behinik behin.

Azterketa teorikoari dagokionez, datuok Kasu Teoriaren bitartez erraz azaltzen dira, baldin eta izenaren eskuineko posizioa, ezkerrekoa ez bezala, kasugabea bada. Azalpenik sinpleenean —baina ez derrigorrez egokienean— soilik berezko kasu-azarleren bat buru duten izenlagunak,

²³ Ondo ulertzen ez ditudan arrazoiengatik, Egile-argumentua agertuz gero, askoz gaitzesgarriagoa da DAT sintagmaren ezkerreko kokalekua:

- (i) a. */??Ferrater Moraren Descartesi sarrera
 b. */??Euskaltzaindiaren Luis Villasanteri omenaldia

hau da PoS-ak, ager litezke izenaren eskuinean.^{24,25} Ondorioz, DATko izenlagunak Determinatzaile Sintagmatzat gabe Postposizio Sintagmatzat joko genituzke emandako azalpenaren arabera. Hala eta guztiz, esan behar dut, Kasu Teoriatik abiatuta ere, badela xehetasun teknikoak lantzeko azterbide asko eta, hortaz, datuoi ez deritzedala erabakigarri hizpide dugun auzirako, ez behintzat egituraren analisi sakon eta oso bat asmatzen ez dugun bitartean.

5. Laburbilpena

Laburbiltzeko, hemen aurkeztutako datuek argi erakutsi dute nire ustez komunztaduradun eta komunztadura gabeko DAT sintagmek oso bestelako jokaera sintaktikoa dutela euskaraz: komunztaduradunek DS-en jokabide petoa erakusten duten bitartean —e.b., *bere* uztartzeko ahalmena, perpaus arazle inpersonaletan *pro_{arb}* zeharkatzeko ezintasuna, beste argumentuen mugidak oztopatzeko ahalmena—, komunztaduragabeek, berriz, PoS-ekin bateragarri bihurtzen dituzten ezaugarriak agertzen dituzte —e.b., *bere* uztartu ezina, mugimendueza perpaus arazle inpersonaletan eta *behar-nahi* eta *irudi* perpausetan, eta DATko izenlagunen existentzia—, egia bada ere azken hauen kasuan azterlanaren fase honetan argudioak oraindik erabatekoak ez diren. Azkenik, artikulua honetan nire egin dut, neurri batean behintzat, Ormazabal & Romeroren (1998) *Aplikatioboaren Hipotesia*, era interesgarrian eta batez ere bateratuan azaltzen baitute DAT sintagmen jokaera bikoitza. Hipotesi honen arabera, DAT sintagmek, aplikatibo baten osagarriak izanda, beronen inkorporazioaren arabera jokabidea izango dute sintaxian. Nire aurreko zenbait lanetan (Albizu 1997 1998b) ikerlari hauen azterbiderako arazo diratekeen zenbait datu plazaratu ditut. Azken konponbidea hango eta hemengo ekarriak bateratzearekin etor daiteke, baina egitasmo hori hurrengo baterako geratzen da.

Aipamenak

Agirre, Jesus Maria. 1991. *Euskal Gramatika Deskriptiboa*. Bilbo: Labayru.

Alberdi, Xabier. 2001. *Euskal Estilo Libururantz*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

²⁴ Jakina, kasurik gabeko osagaiez —hau da, aditzondoez— gainera.

²⁵ Esan beharrik ez dago analisisa ez litzatekeela osoa izango eta azaltzeke utziko lituzkeela esamoldearen beste hiru ezaugarri nagusi: lehenik, postposizioek izenaren ezkerretara duten *-ko* markaren beharra (31a-b); bigarrenik, DAT sintagmen eta *-ko* lotura markaren arteko bateraezintasuna; eta azkenik, DS isolatuen eta esaldien bestelako jokaera. Ikusi baita 22. eta 23. oinoharrak ere.

- Albizu, Pablo. 1990a. "Naturaleza del caso dativo en euskera." Instituto Universitario Ortega y Gasset-eko eskuizkribua, Madril.
- Albizu, Pablo. 1990b. "Verbos semi-modales en euskera y la teoría de los verbos «light»." Instituto Universitario Ortega y Gasset-eko eskuizkribua, Madril.
- Albizu, Pablo. 1997. *The Syntax of Person Agreement*. PH.D. Dissertation, University of Southern California.
- Albizu, Pablo. 1998a. "En torno a la inacusatividad sintáctica de las construcciones impersonales del euskera." *Interlingüística* 8, 13-18.
- Albizu, Pablo. 1998b. "Generalized Person-Case Constraint: A Case for a Syntax-Driven Inflectional Morphology." M. Uribe-Etxebarria & A. Mendikoetxea (arg.), *Theoretical Issues on the Morphology-Syntax Interface*, ASJUren gehigarriak XL. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/EHU. 1-33.
- Albizu, Pablo. 1998c. "Impersonal constructions of Basque revisited." *MayFest '98. Minority Languages in the Twenty-First Century: Perspectives on Basque and Beyond* mintegian irakurritako lana. University of Maryland, College Park (EEBB). (1998ko maiatzaren 21a.)
- Albizu, Pablo. 2000. "Sobre la distribución sintáctica de las formas finitas del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico." *International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU)*. [Inprimatzen]
- Artiagoitia, Xabier. 1992. "Why Basque doesn't Relativize Everything." J.A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 11-35.
- Artiagoitia, Xabier. 2000. "Reciprocal and reflexive constructions." J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. [Inprimatzen]
- Artiagoitia, Xabier. 2001a. *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Artiagoitia, Xabier. 2001b. "Irudiak eta emaeleak." EHUko eskuizkribua, Gasteiz.
- Bonet, M. Eulalia. 1991. *Morphology after Syntax: Pronominal Clitics in Romance*. Ph.D. Dissertation, MIT.
- Chomsky, Noam. 1993. "A Minimalist Program for Linguistic Theory." K. Hale & S. Keyser (arg.), *The view from Building 20: Studies in linguistics in honor of Sylvain Bromberger*. Cambridge, Mass.: MIT Press. 1-51. [Birrarg. N. Chomsky. 1995:167-218].
- Chomsky, Noam. 1995. *The Minimalist Program*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Chomsky, Noam. 1998. "Minimalist Inquiries: the Framework." *MIT Occasional Papers in Linguistics 15*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Chomsky, Noam. 1999. "Derivation by Phase." *MIT Occasional Papers in Linguistics 18*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Demonte, Violeta. 1994a. "On Certain Asymmetries between DOs and IOs." G. Cinque, J. Koster, J.-Y. Pollock, L. Rizzi & R. Zanuttini (arg.), *Paths Towards Universal Grammar. Studies in Honor of R.S. Kayne*. 111-120.
- Demonte, Violeta. 1994b. "La ditransitividad en español: léxico y sintaxis." V. Demonte (arg.), *Gramática del español*. México: El Colegio de México, NRFH VI-ko Argitalpenak.
- Demonte, Violeta. 1995. "Dative alternation in Spanish." *Probus* 7.1, 5-30
- Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia. 1989. "Inkorporazioa perpaus kausatiboetan." P. Salaburu (arg.), *Sintaxi teoria eta euskara*. Donostia: EHU. 87-119.
- Eguzkitza, Andolin. 1993. "Adnominals in the Grammar of Basque." J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam: John Benjamins. 163-188.

- Elordieta, Arantzazu. 2001a. "The Role of Verbal Agreement in Licensing Null Arguments." B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasua eta Komunztaduraren gainean/On Case and Agreement*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Inprimatzen]
- Elordieta, Arantzazu. 2001b. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT.
- Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Bilbo: Euskaltzaindia. [Birrarg. Euskaltzaindia. 1991].
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1991. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fernandez, Beatriz. 1997. *Egiturazko Kasuaren Eraketa Euskaraz*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Franco, Jon & Alazne Landa. 1995. "Conditions After SPELL OUT: The Case of Spanish Clitic Climbing." A. Dainora et al. (arg.), *Clitics, CLS 31-II Papers from the Parasession on Clitics*, Chicago: University of Chicago Press. 105-117.
- Hornstein, Norbert. 1999. "Movement and Control." *Linguistic Inquiry* 30.1, 69-96.
- Hualde, José Ignacio. 1988. "Case Assignment in Basque." *Anuario del Seminario Julio Urquijo (ASJU)* 22.1, 313-330.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Donostia: Elkar.
- Laka, Itziar. 1993. "Unergatives that Assign Ergative Case, Unaccusatives that Assign Accusative." J.D. Bobaljik & C. Phillips (arg.), *Papers on Case and Agreement I*, MITWPL 18. Cambridge, Mass.: MITWPL. 149-172.
- Laka, Itziar. 1995. "The blind case: Burzio's generalization and its image in the mirror." E. Reuland (arg.), *Arguments and Case. Explaining Burzio's generalization*. Amsterdam: John Benjamins. 103-129.
- Makazaga, Jesús María. 1999. "-kiko atzizki konposatuaz." J.C. Odriozola (koord.), *Zenbait Gai Euskara Teknikoaren Inguruan*. Bilbo: EHUren Argitalpen Zerbitzua. 15-54.
- Ormazabal, Javier. 1991. "Modal verbs in Basque and head-movement." J.A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. ASJUren gehigarriak XIV. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/EHU. 835-845.
- Ormazabal, Javier. 2000. "A Conspiracy Theory of Case and Agreement." R. Martin et al. (arg.), *Step by Step: Papers in Honour of Howard Lasnik*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 1998. "On the syntactic Nature of the me-lui and the Person-Case Constraint." *International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU)* 32.2, 415-433.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 2001. "A brief description of some agreement restrictions." B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasua eta Komunztaduraren gainean/On Case and Agreement*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Inprimatzen]
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1994. "Datibo komunztaduraren gainean." R. Gómez & J.A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko Irailak 2-6)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 579-588.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2000a. "Causatives." J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. [Inprimatzen]
- Ortiz de Urbina, Jon. 2000b. "Semiauxiliary verbs." J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. [Inprimatzen]
- Ortiz de Urbina, Jon & Ricardo Etxepare. 2000. "Word order." J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. [Inprimatzen]

- Rebuschi, Georges. 1985. "Théorie du liage et langues non-configurationnelles: Quelques données du basque navarro-labourdin." *Euskera* 30.1, 117-128. [Birrarg. G. Rebuschi (1997:175-218)]
- Rebuschi, Georges. 1986. "Théorie du liage, diachronie et énonciation: Sur les anaphores possessives du basque." *International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU)* 20.2, 325-342. [Birrarg. G. Rebuschi (1997:219-232)]
- Rebuschi, Georges. 1991. "Binding at LF vs. obligatory (counter-)indexation at SS: a case study." J.A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, ASJUren gehigarriak. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 959-984. [Birrarg. G. Rebuschi (1997:251-278)]
- Rebuschi, Georges. 1992. "Absolute and Relativized Locality in the Binding Theory." J.A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 343-363. [Birrarg. G. Rebuschi (1997:279-300)]
- Rebuschi, Georges. 1993. "Basque Pronouns and Relativized Locality." J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam: John Benjamins. 115-144.
- Rebuschi, Georges. 1997. *Essais de linguistique basque*. ASJUren gehigarriak XXXV. Bilbo/Donostia: EHU/Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Rijk, Rudolf P.G. de. 1993. "Basque Hospitality and the Suffix *-ko*." J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam: John Benjamins. 145-162. [Birrarg. R.P.G. de Rijk (1998:377-390)]
- Rijk, Rudolf P.G. de. 1998. *De Lingua Vasconum: Selected Writings*. ASJUren gehigarriak XLIII. Bilbo/Donostia: EHU/Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Rodet, Ana. 1992. "Construccions amb lectura arbitrària en basc." *International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU)* 26.1, 145-179.
- Romero, Juan. 1997. *Construcciones de Doble Objeto y Gramática Universal*, Ph.D. Universidad Autónoma de Madrid, Madril.
- Salaburu, Pello. 1987. "IS-aren mugimendua." P. Salaburu (arg.), *Sintaxi Arazoak*. Donostia: EHU. 65-79.
- Trask, Robert L. 1981. "Basque Verbal Morphology." Euskaltzaindia (arg.), *Euskalariaren Nazioarteko Jardunaldiak*, Iker- I. Bilbo/Iruña: Euskaltzaindia. 285-303.
- Zabala, Igone. 1999. "Izen-Sintagma konplexuak: adjektiboen segidak." J.C. Odriozola (koord.), *Zenbait Gai Euskara Teknikoaren Inguruan*. Bilbo: EHUren Argitalpen Zerbitzua. 107-158.
- Zabala, Igone & Juan Carlos Odriozola. 1992. *Idazkera teknikoa izen sintagma*. Bilbo: EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Zabala, Igone & Juan Carlos Odriozola. 1996. "On the relation between DP and TP. The Structure of Basque Infinitivals." *Catalan Working Papers in Linguistics* 5.2, 231-281.

Euskal Filologia Saila
Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea
 UPV/EHU
 Unibertsitateko ibilbidea, 5
 01006 Vitoria-Gasteiz

fvpalgap@vc.ehu.es